

laboralak

Heziketa Bereziko lan-legepekoak

EGUTEGI-ORDUTEGIA EGITERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO PUNTUAK

- Iraila bukaerako egon behar da eginda gure ordutegia
 - Egutegi-ordutegia ikastetxeko zuzendaritzak Berritzegunera bidaliko du eta Berritzeguneak aztertu ondoren, Lakuako teknikoei bidaliko die.
 - Egutegi-ordutegia langileak, ikastetxeko zuzendariak eta Berritzeguneak sinatuko dute. Ordutegiarekin ados ez bazaude, **ez sinatu** zeren Lakuako Mahai Parekidean aztertu ahal izango dugu sindikatuok. Beraz, **guri jakinarazi!**
 - Ordutegi aldaketak dauden bakoitzean egutegi-ordutegi berria egin behar da, ados egon ahal gara edo ez, eta kasuaren arabera sinatu ala ez.
 - Urteko ordu kopurua 1480koa izango da gehienez eta ikastetxe bakoitzaren eskola-egutegira egokitutakoa izango da. Bi ikastetxetan arituz gero, eguneko lanaldirik luzeena egiten den ikastetxeko egutegia errespetatuko da.
 - Ikasturtean zehar, Berritzegunekoekin 4 bilera gutxienez izan behar ditugu.
 - Hilero 10 ordu izango ditugu koordinazio bilera eta materiala prestatzeko.
 - Jantokian arituz gero, bazkaltzeko erabiltzen dugun denbora lan ordua balitz bezala konputatuko da. Kasu honetan, 45 minutu ditugu bazkaltzeko baina ordutegian ordu oso bat bezala konputatuko dugu. Jantokiko bazkaria Hezkuntza Sailak ordaintzen digu.
- Bazkari denboran ez da derrigorrezkoa zentroan egotea.
- Jardun murriztuetan, jantokian lagundu edo zaintza egin behar baduzu, eskola jantokian dohainik bazkaltzeko eskubidea duzue, baina lan ordutegitik kanpo.(zure jarduna hasi aurretik edo amaitu ostean izan beharko du). Kasu honetan ere, Hezkuntza Sailak ordainduko du bazkaria.
- Eskola garraioan arituz gero, hori ere egutegi-ordutegian konputatuko dugu.
 - Txango guztiak ere egutegi-ordutegian konputatuko dira.
 - Ez gaude behartuta gaua etxetik kanpo pasatzera, hori norberan esku dago.

ESKOLA GARRAIOA

Eskola garraioan aritzeak gure jarduna hasi eta amaitzeko erreferentearengan zuzeneko eragina izan dezake, baita ere lanorduen konputoan: Langilearen eskuetan dago erabakitzea non hasi eta non amaitu bere jardunaldia: zentroan edo garraio eskolarraren geltokian. Bata zein bestea aukera daiteke eta lanaldia, bertan hasi eta bukatu beharko du langileak. Egutegi-ordutegian langileak egiten duen aukera isladatuko da.

GARATU

Aurten bi epe daude ikastaroetan izena emateko, bigarren epea **irailak 6tik 24ra** izango da. Hezkuntza Sailarentzat hezitzaile moduan gutxienez egun batez lan egin baduzue eskaria egiteko eskubidea duzue.

IRALE

Guztiok dakigu Irale programan murrizketak izan ditugula beraz, txanda honetan ordezkoak zaretenok honako eskaintza izango duzue.

-R Ikastaroak

-3000, 4000, 5000 ikastaroak .

Eskaerak egiteko epea **Irailak 13tik 24ra** izango da

Norbait interesatua egongo balitz eta informazio gehiago nahiko balu, jarri dadila gurekin harremanetan.

HIRURTEKOAK

Lanean 3 urte (1080 egun) osatu ondoren ordainduko dizute antzinasuna. Lehenengo hirurtekoa kobratu ahal izateko GOGORATU norberak idatziz eskatu behar duela dagokion Lurralde Ordezkaritzan.

NOTA GARRANTZITSUA: Afiliatu asko dira oraindik helbide elektronikoa emanda ez dutenak. Eskertuko genizueke ahalik eta azkarren zuen gelbide elektronikoa emango bazenigute. Honela, zerbitzu hobeagoa jaso ahal izango duzue. Helbide elektronikoa eman nahi duzuenok bidali irakasdonostia@elasind.org helbidera zuen izen abizenak eta zuen helbide elektronikoa.

ORDAINSARIAK

Gobernuak ezarritako soldata murrizketak direla eta 2010 urteko ordainsarien taula bidaltzen dizuegu.